

AURREKONTUA EGITEA	ELABORACION DEL PRESUPUESTO
Aurrekontua egingo da udal-arlo eta menpeko erakunde bakoitzeko arduradunek hurrengo ekitaldirako aurreikusitako diru-sarrera eta gastuak abiapuntutzat hartuta.	El Presupuesto se elabora a partir de las estimaciones de ingresos y gastos que los responsables de cada área y de cada entidad dependiente determinan para el siguiente ejercicio.
Ogasun Atalean datu guztiak jaso ostean aurrekontuaren zirriborroa egingo da. Kontu-Hartzailetzak, gero, egiaztatu egingo du zirriborro horrek derrigorrez bete beharreko lege-baldintzak betetzen dituela eta, baiezkotan, Alkatetzari helaraziko dio.	Una vez centralizados los datos en el Departamento de Hacienda, se confecciona un borrador que Intervención, tras verificar el cumplimiento de los requisitos legales y económicos de obligado cumplimiento, pone a disposición de Alcaldía.
Alkatetzak egoki deritzen aldaketak egin eta zirriborroa ontzat eman ostean Aurrekontu Proiektua egingo da txostenekin, memoriekin eta beharrezko dokumentazio guztiarekin.	Después de que Alcaldía introduce los cambios que estima oportunos y da el visto bueno al borrador, se procede a formar el Proyecto de Presupuestos junto con los informes, memorias y toda la documentación necesaria.
Kontu-Hartzailetzak Proiektuari buruzko txostena egin eta hori guztia Ogasun Batzordera bidaliko da, bertan aztertzeko. 15 eguneko epea eman ohi da Batzordeko talde politikoek Proiektuari buruzko beraien zuzenketak aurkez ditzaten.	El Proyecto, que debe ser informado por Intervención, se remite a la Comisión de Hacienda para su estudio. Normalmente, se abre un plazo de 15 días para que los grupos políticos que la componen puedan presentar sus enmiendas al Proyecto.
Epe hori igarota berriro batuko da Batzordea, aurkeztutako zuzenketei buruz eztabaidatu eta botoa emateko. Onetsitako zuzenketak Proiektuan sartuko dira; gero, batzordekideek bozkatu eta, emaitzaren arabera, Batzordeak irizpena emango du.	Finalizado el período anterior, se reúne nuevamente la Comisión y se debaten y votan las enmiendas presentadas. Aquellas que son aprobadas se incorporan al Proyecto y, posteriormente, se dictamina mediante votación de los miembros de la Comisión.
Batzordearen irizpena jaso ostean, Aurrekontu Proiektua Udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztuko zaio, gehiengo sinplearekin onetsi dezan.	Tras su dictamen en Comisión de Hacienda, el Proyecto de Presupuestos se presenta para su aprobación por el Pleno de la Corporación, siendo necesaria la mayoría simple.
Behin Aurrekontuak hasierako onespina jasotakoan, hori buruzko iragarkia argitaratu beharko da Aldizkari Ofizialean. Aldi berean, horren edukia Udalaren webgunean argitaratuko da. Une horretatik aurrera 15 eguneko epea irekiko da, edonork alegazioak edota erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezan.	El Presupuesto queda así inicialmente aprobado y debe publicarse anuncio oficial de su aprobación en el Boletín Oficial. Simultáneamente, el contenido del mismo se publica en la página web municipal. A partir de ese momento se abre un plazo de 15 días hábiles para que se puedan presentar alegaciones o reclamaciones por parte de cualquier persona.
Epe hori igaro ostean erreklamaziorik edo alegaziorik balego, Udalbatzak horiei buruz ebatzi beharko du Aurrekontuak behin betiko onespina	Transcurrido el plazo anterior, si hubiera alguna reclamación o alegación, el Pleno deberá resolverla antes de dar por definitivamente aprobado el

jaso aurretik. Alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu ezean, Aurrekontuak behin betiko onetsia izango da automatikoki. Behin betiko onespenak, hori bai, beharrezko izango du Aurrekontua Aldizkari Ofizialean argitaratzea, ondoko hauek adierazita: tokiko entitatea osatzen duten erakundeetako bakoitzaren diru-sarrera eta gastuak, kapituluka laburbilduta, Aurrekontu Bateratua eta Aurrekontu Plantilla. Aurrekontua indarrean sartuko da dagokion ekitaldiko urtarrilaren 1ean edota behin betiko onespena argitaratzen den egunaren biharamunean, baldin eta azken hau beranduago eman bada.	Presupuesto. De no presentarse ninguna, se da automáticamente por definitivamente aprobado. La aprobación definitiva requiere de la publicación en el Boletín Oficial del Presupuesto con sus resúmenes por capítulos de ingresos y gastos de cada uno de los entes que conforman la Entidad Local así como del Presupuesto Consolidado y la Plantilla Presupuestaria. La entrada en vigor del Presupuesto se producirá el 1 de enero del ejercicio correspondiente o el día posterior a la publicación de la aprobación definitiva, si ésta se produce en fecha posterior.
---	--